

ESKOLA-MUGIKORTASUNEKO EKINTZA PLANA

2023. urtearen hasieran, **Donostiako Eskola Mugikortasunaren Ekintza Plana** onartu zen. Plan horrek administrazioaren asmo argia sendotu zuen: hiriko haurren segurtasuna azpimarratzea, hirirako eskubidea bermatzea eta mugikortasun-ohiturak aldatzea.

Planaren helburuak hauek dira:

1. Haurren kontzientzia kritikoa garatzea, ingurunea hobetzeko proposamen-espiritua sustatuz. Askotan, mugikortasunaren arloan, hurrei rol pasiboa ematen zaie, eta horren bidez espazio publikoko portaera-arauak, zirkulazio-arauak, barneratzea baino ez da bilatzen. Baina haurrek espiritu kritikoa garatu behar dute, zuzenean eragiten dieten espazio publikoaren eta mugikortasunaren elementuak baloratzeko edo zalantzan jartzeko.
2. Hezkuntza-komunitatea, familiak, hezitzaileak, auzotarrak eta, oro har, haurren babesean inplikaturako eragile guztiak inplikatzea, eguneroko ohiturak aldatzen lagun dezaten, haurrek kale seguruetan ibiltzeko duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren aldaketa eraldatzaileak egin ahal izateko.
3. Ibilbide seguruaren sare bat sortzea, haurrek eguneroko joan-etorrietan oinez edo bizikletaz mugitzeko aukera izan dezaten, eguneroko joan-etorrietan haien autonomia sustatuz eta segurtasun-baldintzak sortuz. Horrela, murriztu egiten da adingabeak eskolara eramaten dituzten ibilgailu pribatuaren kopurua, airearen kalitatearen, ingurumenaren hobekuntzaren eta haurren bide-segurtasunaren alde egiten baitute.

Ikastetxe bakoitzean Mugikortasuneko Ekintza Plana ezartzeko, lehenengo urratsa ikastetxearen beraren mugikortasunaren **diagnostikoa** egitea da, hiru ezarpen-faserekin: hasierakoa, tartekoa eta aurreratua.

Diagnostiko horretatik abiatuta, planean jasota dauden **7 ekintza estrategikoak** garatuko dira (hiru garapen-faserekin). 1,2,5,6 eta 7 ekintzak (IKUSI KOADROA) ikastetxeek egingo dituzte (Udalaren laguntzarekin).



DONOSTIAKO ESKOLA-MUGIKORTASUNEN EKINTZA PLANAREN LABURPENA

EKINTZA	LIDERRA	KIDEAK	FASEAK	KRONOGRAMA
1. ekintza Eskola-mugikortasun iraunkor aktibo, seguru eta autonomorako mugikortasunaren aldeko manifestua idaztea	Ikastetxeak	Udala Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza)	1.1.-Manifestua idazteko behar diren eragileak identifikatzea. 1.2.- Manifestua idaztea. 1.3.- Manifestua zabaltzea.	2023tik
2. ekintza Eskola-eremuan mugikortasunaren arloan erreferentziazko figura bat sortzea. Mugikortasun-kudeatzailea	Ikastetxeak	Udala Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza)	2.1.- Mugikortasun-kudeatzailearen figura definitzea. 2.2.- Ikastetxean edo institutuan mugikortasun-mahaia sortzea. 2.3.- Pertsonaren bat mugikortasun-kudeatzaile izendatzea	2023tik
3. ekintza Bide-hezkuntzaren eta eskola-mugikortasunaren tratamendua eguneratzea ikastetxeetan	Udala	Ikastetxeak	3.1.- Eskola-curriculumak berrikustea, bide-segurtasuneko prestakuntzarekin duen lotura egiaztatzea. 3.2.- Bide-Seguruko prestakuntza-eskaintzaren egungo zerrenda zabaltzea. 3.3.- Bide-segurtasuneko saio teoriko-praktikoak sustatzea, hezkuntza-mailen arabera.	2023tik
4. ekintza Eskola-inguruneak eta ibilbideak hobetu daitezen sustatzea	Udala	Ikastetxeak	4.1.- Ingurunea eta eskola-ibilbideak hobetzeko aukerak aztertzea. 4.2.- Eskola-bideen proiektuen balizko jarduketei lehentasuna ematea. 4.3.- Ingurunea hobetzeko jarduera fisikoak eta eskola-bideko proiektuak abian jartzea.	2023tik
5. ekintza Garraio moduak eta mugikortasun aktiboko ohiturak sustatzea	Ikastetxeak		5.1.- Mugikortasun jasangarriari, osasungarriari eta seguruari buruzko dibulgazio-kanpainak diseinatzea. 5.2.- Horiek gauzatzeko agente aliatuak bilatzea. 5.3.- Inplematatzea	2023tik
6. ekintza Eskola-mugikortasunaren bereizgarri bat sortzea	Ikastetxeak		6.1.- Etorkizuneko bereizgarriaren erabilera baloratzea. 6.2.- Eskola-mugikortasunaren irudi korporatibo mola hautatzea. 6.3.- Barruko eta kanpoko dibulgazioa.	2023tik
7. ekintza Komunikazio-plana	Ikastetxeak	Udala	7.1.- Planean hartutako neurrietarako aukerak eta komunikazio-bideak aztertzea. Barrukoak/kanpokoak 7.2.- Barne-komunikazioko neurriak abian jartzea. 7.3.- Kanpo-komunikazioko neurriak abian jartzea.	2023tik

2024-2025 ikasturtean, 25 ikastetxeek lan egin dute plana hiri osoan ezartzeko. Eskola Mugikortasunaren Kontseilua ere sortu da, hura ezartzen laguntzeko, eta 6 kontseilu egin dira (azkena 2026ko otsailean).

